gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK - JUNTAS GENERALES

gipuzkoa
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES

FORU-ARAUA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO 3/1990 FORU ARAUA -URTARRILAREN 11KOA- ALDATZEKOA

NORMA FORAL DE MODIFICACIÓN DE LA NORMA FORAL 3/1990, DE 11 DE ENERO, DEL IMPUESTO SOBRE SUCESIONES Y DONACIONES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

HITZAURREA

2011ko krisi ekonomikoa oso handia izan zenez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan eskumena duten erakundeek hainbat zerga-neurri hartu beharra izan zuten, diru-sarrera publikoak handitzeko, ekonomiari suspertzen laguntzeko eta aurrekontu-egonkortasuna ziurtatzeko, eta ekitatearen printzipioan aurreratzen jarraitzeko, zerga-zamak hobeto banatzea ahalbidetuz, eta ahalmen ekonomiko handiagoa dutenei ahalegin handiagoa eskatuz.

Neurri horien artean bat nabarmentzen da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituen abenduaren 26ko 5/2011 Foru Arauaren 2. artikuluko 3. apartatuak jasotzen duena. Xedapen horrek, salbuespen batzuk indargabetu zituen Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari dagozkionez: ahaide zuzenentzako eta ezkontideen edo izatezko bikoteen arteko dohaintzak jasotzea eta oinordetzen, legatuen edo oinordetzarako beste eskubideen ondorioz ondasun edo eskubideak eskuratzea (heriotza kasuetako bizitza-aseguruen kontratuetako onuradunenak barne) zergapetu egingo zen aurrerantzean, 2011ko abenduaren 28tik aurrera. Zehazki, % 1,5eko tasaren arabera zergapetuko ziren, eta 220.000 euroko gutxienekoa salbuetsita geratuko zen «mortis causa» eskualdatzeetan eta bizitza-aseguruetan.

Ekitate-printzipioa finkatzearren, eta eragin txikiko neurriekin diru-sarrera publiko nahikoak lortzearren, eta mota horretako irabazizko eskualdaketetan (bai «inter vivos» bai «mortis causa») gure inguruko administrazioetan ezartzekoa den zerga-tratamenduaren arabera, komeni da ahaide zuzenen eta ezkontideen edo izatezko bikoteen arteko dohaintzentzako eta oinordetzentzako ezarritako araubidea ñabardura batzuekin mantentzea, bai eta

PREÁMBULO

La intensidad de la crisis económica en 2011 impulsó a las Instituciones competentes del Territorio Histórico de Gipuzkoa a adoptar una serie de medidas tributarias, con el objeto de reforzar los ingresos públicos, promover la recuperación económica y asegurar la estabilidad presupuestaria, sin perder de vista la contribución al avance en el principio de equidad, permitiendo una mejor distribución de las cargas tributarias y reclamando mayores esfuerzos por parte de quienes tienen mayor capacidad económica.

Entre ellas destaca la contenida en el apartado tres del artículo 2 de la Norma Foral 5/2011, de 26 de diciembre, de modificación del Impuesto Sobre la Renta de las Personas Físicas tendente a la recuperación de la equidad, y de aprobación de otras medidas tributarias, en relación al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, que supuso la derogación de la exención de las donaciones y de las adquisiciones de bienes y derechos por herencia, legado o cualquier otro título sucesorio, incluidas las de beneficiarios de contratos de seguros sobre la vida para el caso de fallecimiento, para familiares en línea recta y entre cónyuges o parejas de hecho, que pasaron a tributar a un tipo proporcional del 1,5 por 100 (con un mínimo exento de 220.000 euros para las transmisiones "mortis causa" y por seguros de vida) con efectos desde el 28 de diciembre de 2011.

La consolidación del principio de equidad, así como de la suficiencia de los ingresos públicos con medidas de impacto moderado, y el tratamiento tributario de este tipo de transmisiones lucrativas, bien sea "inter vivos" o "mortis causa", aplicable en las Administraciones de nuestro entorno, recomienda mantener con matices el régimen establecido para estas donaciones y sucesiones en línea recta y entre cónyuges o parejas de hecho, así como el establecido para las percepciones de

pertsona horiek heriotza kasuetan bizitza-aseguruetatik zenbatekoak eskuratzeko ezarritako araubidea ere.

Foru-arauaren proposamen honen bidez, ahaide zuzenentzako eta ezkontideen edo izatezko bikoteen arteko «mortis causa» eskualdaketa horien eta bizitza-aseguruen ondorioz jasotako zenbatekoen tributazioa aldatzen da, eta % 1,5eko zerga-tasaren arabera tributatzen jarraitzen dute, baina minimo salbuetsia oinordeko bakoitzeko 400.000 eurora igotzen da.

cantidades derivadas de seguros de vida por estas mismas personas, como consecuencia del fallecimiento del causante.

Mediante la presente Proposición de Norma Foral, se modifica la tributación de dichas transmisiones "mortis causa" y de las adquisiciones de cantidades percibidas por razón de los seguros sobre la vida en línea recta y entre cónyuges o parejas de hecho, que continúan tributando al tipo proporcional del 1,5 por 100, si bien se eleva el mínimo exento de tributación a 400.000 euros por cada sucesor.

Artikulu bakarra. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Bat. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Arauaren 19. artikuluko 2. apartatua aldatuko da, eta honela idatziko da:

"Aurreko apartatuan xedatutakoaren kaltetan gabe, «mortis causa» eskurapenetan oinarri likidagarria kalkulatuko da oinarri ezargarriari 20. artikuluko 1. zenbakian jasotako ahaidetasun mailak kontuan hartuta dagokion murrizpena aplikatuta. Hau izango da murrizpena:

a) 400.000 euro, I. taldean sartutakoentzat.

b) 16.150 euro, II. taldean sartutakoentzat.

c) 8.075 euro, III. taldean sartutakoentzat.

Minusbaliotasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa duten pertsonek eta mendetasun egoeran daudenek egindako eskurapenetan 80.000 euroko murrizpena aplikatuko da, kausatzailearekiko ahaidetasun mailagatik bidezkoak izan litekeenak eragotzi gabe.

Ondorio horietarako, ulertuko da pertsona minusbaliatuek edo mendetasun egoeran daudenek murrizpenerako eskubidea dutela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan kenkaria aplikatzeko eskubidea zerga horren

Artículo Único. Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

Uno. Se modifica el apartado 2 del artículo 19 de la Norma Foral 3/1990, de 11 de enero, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, quedando redactado como sigue:

"2. En las adquisiciones "mortis causa", sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, la base liquidable se obtendrá aplicando en la base imponible la reducción que corresponda según los grados de parentesco establecidos en el número 1 del artículo 20, siendo la reducción de:

a) 400.000 euros para los comprendidos en el Grupo I.

b) 16.150 euros para los comprendidos en el Grupo II.

c) 8.075 euros para los comprendidos en el Grupo III.

Además de las que pudieran corresponder en función del parentesco del causante, se aplicará una reducción de 80.000 euros en las adquisiciones por personas con minusvalía física, psíquica o sensorial, así como por las personas en situación de dependencia.

A estos efectos, se considerarán personas con minusvalía o personas en situación de dependencia con derecho a reducción, aquéllas que determinan derecho a deducción del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

araudiaren arabera baliatzen dutenean.

Bi. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Arauaaren 19. artikuluko 4. apartatua aldatuko da, eta honela idatziko da:

"Bizitza aseguruak direla-eta jasotako kopuruen eskurapenetan, oinarri likidagarria lortzeko honako murrizpenak aplikatuko dira oinarri ezargarrian:

A) Kontratatzailearen edo aseguru hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasunaren arabera:

a) 400.000 euro, I. taldean sartutakoentzat.

b) 16.150 euroko murrizpena, bai eta gainerako kopuruaren %25ekoa ere, II. taldeko ahaidetasun maila denean.

c) 8.075 euroko murrizpena, III. taldeko ahaidetasun maila denean.

Aseguru kolektiboetan edo enpresek beren enplegatuen alde kontratutako aseguruetan, aurreko murrizpenak aseguratuaren eta onuradunaren arteko ahaidetasunaren arabera aplikatuko dira.

Murrizpen horretaz gozatu ahal izateko, polizan aurreikusitako ezbeharra gertatu baino gutxienez bi urte lehenago hitzartua behar du izan aseguruak, hura modu kolektiboan hitzartu ez bada behintzat.

B) %100eko murrizpena egingo da, jasotako kopuruak terrorismo ekintzak nahiz nazioarteko giza edo bake laguntzako misio publikoetan emandako zerbitzuak direla medio hitzartu diren bizitza aseguruen ondorio direnean.

según la legislación propia de este Impuesto."

Dos. Se modifica el apartado 4 del artículo 19 de la Norma Foral 3/1990, de 11 de enero, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, quedando redactado como sigue:

"4. En las adquisiciones de cantidades percibidas por razón de los seguros sobre la vida, la base liquidable se obtendrá aplicando en la base imponible las siguientes reducciones:

A) En función del parentesco entre el contratante o tomador del seguro y el beneficiario:

a) 400.000 euros para los comprendidos en el Grupo I.

b) Reducción de 16.150 euros, así como del 25 por 100 de la cantidad restante, cuando sea el señalado en el Grupo II.

c) Reducción de 8.075 euros, cuando sea el señalado en el Grupo III.

En los seguros colectivos o contratados por las empresas en favor de sus empleados, las anteriores reducciones se practicarán en función del parentesco entre el asegurado y el beneficiario.

Para gozar de esta reducción, el seguro deberá haber sido concertado, al menos, con dos años de antelación a la fecha en que el evento previsto en la póliza se produzca, salvo que ésta se hubiera concertado en forma colectiva.

B) Se aplicará una reducción del 100 por 100 cuando se trate de cantidades percibidas por razón de los seguros sobre la vida que traigan causa en actos de terrorismo, así como en servicios prestados en misiones internacionales humanitarias o de paz de carácter público."

Xedapen Gehigarri Bakarra. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Arauari lehenengo xedapen gehigarria eransten zaio, honako hau dioena:

Disposición Adicional Única. Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones

Se añade una Disposición Adicional Primera a la Norma Foral 3/1990, de 11 de enero, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, con la siguiente redacción:

"Lehen xedapen gehigarria. Parekatzeak.

1.- Parekatze hauek ezartzen dira foru arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako:

a. Pertsona adoptatuekin parekatzen dira harrera iraunkorrean edo adopzio aurreko harreran hartutako pertsonak, legedia zibilaren arabera eraturiko harreren kasuan.

b. Adoptatzen duten pertsonekin parekatzen dira harrera iraunkor bat edo adopzio aurreko harrera bat egiten duten pertsonak, legedia zibilaren arabera eraturiko harreren kasuan.

2.- Xedapen gehigarri honetan aurreikusitako parekatzeak zerga honen elementu guztietan aplikatuko dira."

"Disposición Adicional Primera: Equiparaciones.

1.- A efectos de lo establecido en la presente Norma Foral se establecen las siguientes equiparaciones:

a. Se equipararan a los adoptados las personas objeto de acogimiento permanente o preadoptivo, constituido con arreglo a lo establecido en la legislación civil.

b. Se equipararan a los adoptantes las personas que realicen un acogimiento familiar permanente o preadoptivo, constituido con arreglo a lo establecido en la legislación civil.

2.- Las equiparaciones previstas en la presente disposición adicional se aplicarán en todos los elementos del presente impuesto."

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean sartzea

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean, eta data horretatik aurrerako sortzapenentzako eraginak izango ditu.

Bigarrena. Gaikuntza

Foru Aldundiari baimena ematen zaio foru arau hau garatzeko eta ezartzeko beharrezko xedapenak emateko.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Entrada en vigor

La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el "Boletín Oficial de Gipuzkoa" con efectos para los devengos que se produzcan con posterioridad a dicha fecha.

Segunda. Habilitación

Se autoriza a la Diputación Foral para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Norma Foral.